

Astelehena, 2013/09/30

Kronika.net

Argazkiak

Elkarrizketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Egin Bazkide

AURREKO EDIZIOAK

Aukeratu nahi duzun data

2013

iraila

29


BILATU

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



KRONIKA.NET

ASTIGARRAGA - XIII. SAGAR UZTA

Egun osoko festa bihar, tolaretako lanen hasiera ospatzeko

Sagar Uzta ospatzen ari da Astigarraga egun hauetan. Bihar izango da egun haundia. Aurtengo berritasuna, gazta dastaketa gidatua.

2013/09/28 - Larunbata

Sagarra bildu eta tolaretako lanei ekiteko garaia da eta hori ospatzen ari dira Astigarragan. Urtero bezala, Sagar Uzta jaialdia antolatu dute. Ostegunean hasi ziren pintxo-potearekin. Sagarraren eratorriein egindako pintxoak probatzeko aukera izan zen. Atzo, berriz, Euskal Herriko sagarren kata gidatua egin zuten Roxario Jatetxean. Dena dela, egun potoloa biharkoa izango da.

Aurreneko muztioaren elaborazioa

Plazan izango da festa bihar, goizetik arratsaldera bitarte. Sagar tarta lehiaketa eta argazki lehiaketa izango dira hasteko. Ohi bezala, aurtengo uztako aurreneko muztioaren elaborazioa ere egingo dute eta probatzeko aukera ere izango da. Horrez gain, sagardotegien arteko sagar bilketa txapelketa egingo dute. Eta aurren, berritasun bezala, gazta dastaketa gidatua antolatu dute.

EGITARAUA

Ekintza guztiak Plazan.

10:30-12:00 Sagar tarta lehiaketarako tartak entregatzea frontoian.

10:30-12:00 VI. Sagar Uzta Argazki Rally Digitalean izen-emateak frontoian.

11:00-13:00 Gazta dastaketa gidatua haur eta helduentzat (izena emateko: 943 550 575 / info@sagardoarenlurraldea.com).

11:00-13:30 Haurrentzako

tailerrak eta jolasak.

11:00-14:00 Sagarraren azoka:

- Sagarren erakusketa, dastaketa eta salmenta.

- Sagardo dastaketa.

- Saski, txertaketa, etabarren erakustaldiak.

- Produktu gastronomikoen salmenta.

- Muztio dastaketa herrian zehar karreto barrika eta trikitilariekin.

11:00 2013 uztako lehen

muztioaren elaborazioa. Sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea.

12:30 Sagar dantza eta kirikoketa.

13:00 Txalaparta eta urteko lehen muztioaren dastaketa.

13:30 Sagardotegien arteko sagar bilketa txapelketa.

14:00 Sagar tarta lehiaketa eta sagar bilketa sari banaketa.

14:30 Herri bazkaria Gure Izarra elkartearen.



Zabaldur!

BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

GAURKO KRONIKA



ARGAZKIAK



DIKUSI



klik **hemen**